

05/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO UZTAILAREN 26AN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko uztailaren 26an goizeko hamaikak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ez Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Bakarne Olano Manzano, Kepa De la Iglesia Sánchez, Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2015 ETA 2016KO EKITALDIETAKO AURREKONTUEN KONTU OROKORREI ONESPENA.

Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak, 2017ko maiatzaren 15ean eginiko bileran, bere oniritzia eman zien 2015 eta 2016 ekitaldietako Kontu Orokorre, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3. artikuluan ezarritakoa betez jendaurrean jarriz hamabost egunez; 2017ko ekainaren 9ko 110 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

Epe horretan, interesatuek erreklamazio edo oharra aurkeztu ahal izan zituzten Anoetako Udalaren Sarrera Erregistro Orokorrean, bulego lanorduetan; ez da erreklamazio edo oharrik aurkeztu.

Alkateak 2015 eta 2016 ekitaldietako Kontu Orokorren berri eman ondoren bozketara eraman du.

Aho batez onartu da.

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehena.- 2015 eta 2016 ekitaldietako Anoetako Udalaren Kontu Orokorrak propioak onestea.

Bigarrena.- 2015 eta 2016 ekitaldietako Anoetako Udalaren Kontu Orokorrek, behinbetiko izaeraz onetsirik, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea.

2.- ANOETAKO BASAGAIN HERRIXKA GOTORTUAREN GUNE ARKEOLOGIKOAREN MUGAKETARAKO DERRIGORREZKO DESJABETZE ESPEDIENTEA.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren otsailaren 2ko 37/2010 dekretuaren (2010eko otsailaren 17ko 32 zenbakidun EHAAn argitaratua) bigarren artikuluan Anoetan dagoen Basagaingo Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoaren inguruan ondorengo xedatzen da:

.../...“2. artikulua: *I eranskinean azaltzen diren arrazoiak direla eta ondasunen mugaketa bezala Dekretu honen eranskin berean agertzen dena ezartzea.*”.../...

I. eranskinak ondorengo dio hitzez hitz:

Mugaketa

“Gotortutako gune honen mugaketak, berez, ez du inongo zailtasunik, gunea inguratzen duen gotortze lana bera baita horretarako irizpiderik garbiena.

Hala eta guztiz ere, aztarnategiaren babesa osoki bermatzeko, haren perimetroa egingo duen harresiz kanpoko lur zerrenda bat markatu beharra dago, hainbat arrazoiengatik: lehenik eta behin, inolako erabilerak arriskuan jar ez dezan harresia; bigarrenik, aztarnategia balioetsi ahal izateko gune hori libre utzi behar delako, eta azkenik, hesiaren bestaldean ere aztertzea eta errekuiperatzea merezi duten materialak egongo direlako.

Beraz, azaldutako guztiagatik, ondasuna babesteko guneak harresitik kanpora, hamar metrora, izango du muga.”

Derrigorrezko desjabetze espedientea hasteko nahitaezkoa da desjabetzeak ukituriko ondasun eta eskubideen onura publikoa zein gizarte interesa eta lursailak okupatu beharra aitortutzat jotzea. Onura publikoa zein gizarte interesa aitortzeak, hertsiki ezinbesteko lursailak okupatzeko behar zehatzaren gain ebaztera baimentzen du Administrazioa.

2016ko abenduaren 2an Raimundo Mendiburu Abad arkitekto aholkulariak egindako txostenean ondorengo dio:

.../...

“Proiektuaren garapena:

2016 urtean zehar, onarturiko proiektuari dagokionean hurrengo lanak burutu dira:

I. *Kultura Ondasun babeserako eskuratu beharreko lursailen inguruan:*

1.- Desjabetu beharreko azaleraren lurzoru eta eraikinen balorazio ekonomikoa jasotzen duen txostena. Aldi berean, Gipuzkoako Baso Elkartek esku hartze eremua zedarritu du; zehazki, herriko harresiaren kanpo aldean dagoen 10 metroko zabalera duen lursaila da (1. Eranskina).

2.-Hainbat bilera egin dira eragina jasango duten jabeekin lursailen desjabetze prezioaren inguruko adostasun bat lortzeko. Hartara, Udalak eskatutako balorazioa adostasun osoz onartu zen.”

.../...

2016ko urriaren 3an Gipuzkoako Baso Elkarteko Fernando Otazua mendi ingeniariak balorazio txostena egin zuen, ondorengo taulan balorazioaren laburpena adierazten da:

Plano zbk.	Pol.	Partzela	Azalera m2	Lurzoruaren balioa €	Bueloaren balioa €	Totala
1	1	106	400	469,84	0,00	469,84
2	1	105	129	151,5234	254,74	406,26
3	1	155	57	66,9522	123,75	190,70
4	1	166	195	229,047	0,00	229,05
5	1	171	1.058	1.242,7268	1.435,49	2.678,22
6	1	146	555	651,903	927,52	1.579,42
7	1	145	397	466,3162	783,96	1.250,27
8	1	123	605	710,633	1.461,32	2.171,95
9	1	118	878	1.031,2988	2.236,09	3.267,39
10	1	102	1.155	1.356,663	792,56	2.149,22
11	1	101	1.022	1.200,4412	2.530,19	3.730,63
12	1	100	642	754,0932	684,53	1.438,63

TOTALAK 7.093 19.561,57

Ikusita 2017ko uztailaren 11n Hirigintza eta Obretako batzordearen aldeko irizpena.

Aho batez onartu da.

1. Anoetan dagoen Basagaingo Herrixka Gotortuaren Gune Arkeologikoaren inguruan aztarnategiaren babesa osoki bermatzeko beharrezkoak diren lurrak eskuratzeko derrigorrezko desjabetze espedienteari hasiera ematea Nahitaezko Desjabetze Legearen 15. artikulua araber, interes publikoa eta gizarte erabilera aitortutzat emanez.

2. Desjabetzeak ukitutako ondorengo ondasun eta eskubideen okupazio beharra aldarrikatzea eta zerrenda osatzea:

— Landalur katastroko 1 poligonoko 118 partzelako 878 m², M^a Jesus Vidaror Dendaluce, Pedro Vidaror Dendaluce eta M^a Elena Vidaror Dendaluce jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 106 partzelako 400 m², M^a Jesus Vidaror Dendaluce, Pedro Vidaror Dendaluce eta M^a Elena Vidaror Dendaluce jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 123 partzelako 605 m², Juan Jose Saralegui Olarra jaunaren jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 145 partzelako 397 m², Juan de la Cruz Usandizaga Iturrioz jaunaren jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 155 partzelako 57 m², Ignacio Garmendia Mayoz eta Josefa Ignacia Larrarte Insausti jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 146 partzelako 555 m², Ignacio Garmendia Mayoz eta Josefa Ignacia Larrarte Insausti jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 171 partzelako 1.058 m², Jesus M^a Artola Saralegui jaunaren jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 166 partzelako 195 m², Ana M^a Zugasti Otaño, Engracia Zugasti Otaño, M^a Isabel Zugasti Otaño, Rosalia Zugasti Otaño, M^a Julia Zugasti Otaño, M^a Mercedes Zugasti Otaño eta M^a Victoria Jose Zugasti Otaño andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 105 partzelako 129 m², Jose M^a Urquizu Beraza, Agustin Urquizu Beraza, M^a Begoña Urquizu Beraza, Juan Jose Urquizu Beraza, M^a Milagros Urquizu Beraza, Ramon Urquizu Beraza eta Ana Isabel Urquizu Beraza jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 100 partzelako 642 m², Miguel Angel Urquizu Oyarzabal, Jose Ramon Urquizu Oyarzabal, M^a Aranzazu Elicechea Yarzabal eta Antonia Oyarzabal Aldanondo jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 101 partzelako 1.022 m², Lorenzo Irazusta Roteta, Antonio Irazusta Roteta, Martin Irazusta Roteta, M^a Luisa Irazusta Roteta, M^a Victoria Irazusta Roteta, M^a Esther Barandiaran Artola, Jose M^a Irazusta Barandiaran, Alfonso Irazusta Barandiaran, Patxi Aramburu Irazusta, Garbiñe Aramburu Irazusta eta M^a Carmen Guerra Velez jaun-andreen jabetzakoa.

— Landalur katastroko 1 poligonoko 102 partzelako 1.155 m², Jose Ramon Urquizu Oyarzabal eta M^a Aranzazu Elicechea Yarzabal jaun-andreen jabetzakoa.

3. Espedientea jendaurrera ateratzea, 15 eguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz eta interesdunei jakinarazpena igorritz, jabeek eta gainontzeko interesdunek euren eskubideentzako komenigarri izan daitezkeen alegazioak egin ditzaten, hala nola, jabe-izen edo hartzen diren ondasunen deskribapenari buruzko zuzenketak.

4. Alkateari ahalmenak ematea, prozedura honetarako beharrezko egintzak aurrera eramane eta dagozkion hitzarmenak sinatzeko.

5. Tolosako Jabetza Erregistroari, desjabetze espediente honekin eragindako finken desjabetze espedienteari buruzko marjinako oharra jartzea eskatzea.

3.- 1/2017 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2017ko uztailaren 21ean ospaturiko Ogasun Batzordeak aldeko irizpena eman dio ondorengo kreditu aldaketa espedienteari: 1/2017 kreditu aldaketa espedientea: kreditu gehigarriak, kreditu transferentziak eta kreditu gaikuntza modalitateak.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- Kreditu aldaketarako 1/2017 espedientea hasierako izaeraz onestea, Udal honen 2017 urteari dagokiona, kapituluka, gastuen Aurrekontuen aplikazioen kreditu gehigarri bidez eta ondoren azaltzen den modura:

Kreditu gehikuntzak:

IV. Kap.	Transferentzia arruntak	246.500,00 €
VI. Kap.	Inbertsio errealak	476.214,55 €
VIII. Kap.	Finantza aktiboak	37.500,00 €
	GUZTIRA	760.214,55 €

Finantzatzen duten errekurtsuak:

VIII. Kap	Finantza aktiboak	760.214,55 €
	GUZTIRA	760.214,55 €

1.- KREDITU GEHIGARRIAK**GASTUAK**

PARTIDA	KONTZEPTUA
1.0000.623.342.10.0 2	Kiroldegiko konponketa
1.0000.471.323.10.0 1	Dirulaguntza Anoeta Herri Ikastola
1.0000.471.342.10.0 1	Ekarpena: Kiroldegia
1.0000.470.420.00.0 1	Tolosaldea Garatzen, S.A.
1.0000.600.151.00.0 1	Idiakaitz borda eraitsi ta lur erosketa
1.0000.601.151.00.0 1	Lasarbe Urbanizazi.Lekueder eraitsi
1.0000.601.454.00.0 1	Azpiegitura eta Urbanizazioa: Elbarrenako bidea eta zubia
1.0000.622.337.20.0 1	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak: gazte lokala
1.0000.601.153.20.0 1	Azpiegitura eta urbanizazioa: San Juan Kaleko konponketa
1.0000.625.920.20.0 1	Bulegoko ekipoak
1.0000.626.920.30.0 1	Informazio prozesuetarako ekipoak
1.0000.823.151.00.0 2	Bestelako aurrerakin eta mailegua: ostatua ematea

FINANTZATZE**N DITUZTEN****BALIABIDEAK**

PARTIDA	KONTZEPTUA
2.0200.870.000.00.0 1	Diruzaintza gerakina

Bigarrena.- Kreditu aldaketarako 1/2017 espedientea hasierako izaeraz onestea, Udal honen 2017 urteari dagokiona, kreditu transferentzia motan eta ondoren azaltzen den modura:

Kreditu transferentzia:

II. Ka	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2.400,00 €
IV. Kap.	Transferentzia arruntak	107,29 €
	GUZTIRA	2.507,29 €

Finantzatzen duten errekurtsok:

II. Ka	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2.507,29 €
	GUZTIRA	2.507,29 €

2.- KREDITU TRANSFERENTZIA

GASTUAK

PARTIDA	Kontzeptua	Egungoak	Gehikuntzak	Behin Betikoak
1.0000.214.920.20.0 1	Altzari eta lanabesen konponketa	2.000,00	900,00	2.900,00
1.0000.215.920.20.0 1	Informazio prozesuetarako ekipa	2.000,00	1.500,00	3.500,00
1.0000.481.414.10.0 1	Ekarpena: Tolomendi	3.940,00	107,29	4.047,29
		7.940,00	2.507,29	10.447,29

**FINANTZATZE
N DITUZTEN
BALIABIDEAK**

PARTIDA	KONTZEPTUA	Egungoak	Gutxitzeak	Behin Betikoak
1 0000.226.920.40.99	Beste hainbat gastu eta komunitate kuotak	19.060,00	2.400,00	16.660,00
1.0000.227.414.00.0 7	Azterketa eta lan teknikoak. Ingurumena	28.000,00	107,29	27.892,71
		47.060,00	2.507,29	44.552,71

Hirugarrena.- Kreditu aldaketarako 1/2017 espedientea hasierako izaeraz onestea, Udal honen 2017 urteari dagokiona, kreditu gaikuntza motan eta ondoren azaltzen den modura:

Kreditu gaikuntza:

VI. Kap	Inbertsio errealak	30.285,45 €
	GUZTIRA	30.285,45 €

Finantzatzen duten errekurtsuak:

VII. Kap Kapital transferentziak 30.285,45 €

GUZTIRA30.285,45 €

3.- KREDITU GAIKUNTZA

GASTUAK-

PARTIDA	KONTZEPTUA	Egungoak	Aldaketak	Behin Betikoak
1.0000.623.342.10.0 2	Kiroldegiko konponketa	1.000,00	30.285,45	31.285,45
		1.000,00	30.285,45	31.285,45

**FINANTZATZ
EN DITUZTEN
BALIABIDEAK**

PARTIDA	KONTZEPTUA	Egungoak	Aldaketak	Behin Betikoak
2 0200.720.342.10.99	FAko diru laguntza- Kirola	2.250,00	30.285,45	32.535,45
		2.250,00	30.285,45	32.535,45

Laugarrena.- 1/2017 zenbakia duten Kreditu Aldaketen espedientea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duena bezala. Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, onarturiko erabakiak behin betiko izaera hartuko du, berriro kapituluka Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik.

4.- 2017KO EKITALDIAN LANGILEEN ORDAINSARIAK %1 GEHITZEA.

Alkateak, EUDELen proposamenean oinarrituz honako proposamena egin du:

2017ko ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirateke 2016ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinatasunari begira, 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan zehaztutako aukera kontuan hartura”.

Ikusita 2017ko uztailaren 21ean Pertsonal Batzorde Informatzaileak emandako irizpena.

Aho batez onartu da.

Igoera honek ondorioak izango ditu 2017ko urte hasieratik, beraz, neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izan ditzan ondorioak.

5.- ALKATEAREN ORDAINSARIA EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak EH Bildu udal-taldearen proposamena aurkeztu du alkatearen ordainsariari buruzkoa. Honela dio:

“*PROPOSAMENA: ORDAINSARIA.- Kontutan izanda alkatearen ordainsaria 2015eko urtarriletik 35.000,00 euro gordin dela eta geroztik ez dela inongo igoerarik aplikatu,*

proposatzen da 2017ko urtarrilaren 1etik, legealdia bukatu arte, 37.000,00 €ko ordainsaria izatea”.

Ikusita 2017ko uztailaren 21ean Pertsonal Batzorde Informatzaileak emandako irizpena.

Aho batez onartu da.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du bozkatzeko: 2017ko ekitaldirako, hilean 2.642,86 €-ko ordainsaria finkatzea, 14 pagatan, eta lanaldi osoko dedikazioarekin.

Igoera honek ondorioak izango ditu 2017ko urte hasieratik, beraz, neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izan ditzan ondorioak.

6.- ALTSASUKO GERTAEREN ONDORIOEN INGURUKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu den ondorengo erakunde adierazpena aho batez onesten da:

“Joan zen urriaren 15ean Altsasuko taberna batean gertatutako egitateen aurrean, non bi guardia zibil eta haien bikoteak zauritu ziren, zein gertaera hauetatik eratorri diren ondorioak ikusirik, Anoetako Udalak bakearekiko eta elkarbizitzarekiko bere konpromisoa berresten du eta erabateko desadostasuna agertzen du aztertutako egitateak terrorismotzat kalifikatzearekin, gazte auzipetuei neurrigabeko zigorrak ekarri badiezazkieke.

Hilabete hauetan zehar, makina bat izan dira Euskal Herrian osoan izan diren elkarretaratze, manifestazio eta mota guztietako ekitaldiak zeinetan pertsona, eragile zein instituzioek auzi honen baitan ematen ari den izugarritzko proportzionaltasun eza salatu dute.

Epealdi honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako instituzio nagusiek, tartean Nafarroako Parlamentuak zein Eusko Legebiltzarrak argi esan dute gertatuak ezin direla terrorismo ekintzat kalifikatu, kode penalaren 573. Artikuluaren pean, eta ondorioz Nafarroan instruitu eta epaitu beharko litzatekeela.

Orain gutxi ere, Madrileko Gorte Orokorretako 74 diputatu zein senatarik, Europako Parlamentuko 52 diputatuk eta Hego Euskal Herriko 83 alkatek auziarengatik euren kezka agertu dute.

2017ko uztailaren 4ean jakin da zein eskaera egin duen Estatuko Fiskaltzak auzipetutako gazteentzako, 62 urte eta 6 hilabeteko eskaera gazteetako batentzat, 50 urte sei gazteentzat eta 12 urte eta 6 hilabete zortzigarrenarentzat. Zuzenbidezko Estatu batean onartezina litzatekeen neurrigabekeria.

Guzti honengatik Anoetako Udaleko Osoko Bilkurak honakoa onartzen du:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

- 1. Anoetako Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik,*

kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.

2. *Anoetako Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.*
3. *Anoetako Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiarena izan behar lukeela.*

Anoetan, 2017ko uztailaren 5ean”

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, goizeko hamaikak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.